

Euskal-azterketa batez iritzipena.

Adiskide Josu Martin Apalategi Begiristain euskal-azterari hurre az-
terketak egiten saiatu ibilia dugu. Lehendik ordea antropologiako ikasun-
tzei susaro emana gure herrialde hontan nahie ezbestean. Orain berriz gai ho-
rietako irakasketa euskal-unibertsitatean dago.

Ez da beraz Teoriako lan urtean gelditu. Haskuntza berren iturri-adarretara
joan da, giration berriturak eta buruzpideak ikastera. Eta lanbide hontan, gauzen eta
egintzen iduriak ezarki biltzeko, antzo edo teknika berriak eta lanak egokiak eta
bilo iran ditu.

Bide hontan jarraituz, irakastun-lan edo tesi ederra berriki egina du, Unibertsitatean
biziki ontrat eta goiko mailako bezala hartua eta goresgarriki ireritatu. Basi hori bost-
atalako liburu handi bat da. Bere izena Ahozko herri-produkzioa. Ataun'go herria, persona-
taldeak eta personak.

Liburu mardula benetan, ahozko egintzen bidez iraki eta irakazaz ikasketa sakon-
tzen duana, eta behar iduria argi dakarkiguna. Lehenbailehen argitaratzea mere-
zi du, gure herri honeguz darabiltzkigun ikaskuntzak aurreratzeko eta ikerketa
berriak sorreratzeko.

Ataun'en, 1985^go Urtarrilaren 10ⁿ.

Barandiaran'go Joxemiel

Euskal-azterketa batez iritzipena

Adiskide Jose Martin Apalategi Begiristain eus-
kal-azterari buruz azterketak egiten gogorki ibilia
dugu. Lehendik ordea antropologiako iharduntzari lu-
zaro emana gure herrialde hontan nahiz erbestean. O-
rain berriz gai horietako irakasle Euskal-unibertsiti-
tatean dago.

Ez da beraz teoriako lan utsean gelditu. Ikas-
kuntza beraren iturri-adarretara joan da, gizakien bi-
zikerak eta buruzpideak ikastera. Eta lanbide hontan,
gauzen eta egintzen iduriak zeazki biltzeko, antzo e-
do teknika berriak eta lanabes egokiak erabili izan
ditu.

Bide hontan jarraituz, irakastun-lan edo tesi
ederra berriki egina du, Unibertsitatean biziki ontrat
eta goiko mailako bezala hartua eta goresgarriki izen-
tatua. Tesi hori bost ataleko liburu handi bat da. Be-
re izena Ahozko herri-produkzioa. Ataun'go herria, per-
sonataldeak eta personak.

Liburu mardula benetan, ahozko egintzen bidez
izaki eta izakerazaz ikasketa sakontzen duana, eta be-
hauen iduria argi dakarkiguna. Lehenbailehen argitara-
tzea merezi du, gure herri honeguz darabiltzkigun ikas-
kuntzak aurreratzeko eta ikerketa berriak sorrerazte-
ko.

Ataun'en, 1985^go Urtarrilaren 10ⁿ

Barandiaran'go Joxemiel